BERBALAGUN PROGRAMA KOORDINATU ETA KUDEATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOAK

LEHIAKETA IREKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza teknikoen plegu edo agiri honen helburua honako objektu hau izango duen zerbitzua lehiaketa ireki (super)sinplifikatuaren bidez kontratatzeko baldintza teknikoak ezartzea da: 2025ko urtarrilaren 7tik 2026ko abenduaren 31ra arte Berbalagun Programaren koordinazioa, kudeaketa, dinamizazioa eta jarduera osagarrien antolaketa, urte batez luzagarria (2027).

Berbalagun programa Ortuellako Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plan Estrategikoan txertatuta dago, gaur egun indarrean dagoena AROA udalerrirako plan estrategiko berria diseinatu eta onartu arte, eta beraren bitartez, euskara praktikatzeko aukera eskaini nahi diegu euskalduntze prozesuan hizketarako gaitasuna garatzen ari diren pertsonei zein mintzatzeko aukera gutxi duten euskaldunei, berba-taldeak eratuz.

Horretaz gain, berba-talde horietan dauden pertsonei zein orokorrean interesa duten gainontzeko herritarrei zuzendutako aisialdiko jarduera osagarriak ere antolatu eta garatuko dira programaren baitan. Hauek, hilean behin gutxienez antolatuko dira eta Meatzaldeko Berbalagunen hileko kultur agendan islatuko dira.

Halaber, proiektuaren baitan komunikazio kanpainak gauzatuko dira, bai izena emateko, bai balizko parte-hartzaileak motibatzeko, den-dena kontratuaren lizitazio prezioaren baitan.

Proposamen teknikoan kontratuaren objektu diren hauek guztiak agertzeaz gain, enpresak gutxieneko berba-talde kopurua, ohiko taldeena zein gurasolagunena, baita gaztelagunena ere, bermatzearren gauzatuko dituen ekintza zehatzak jaso beharko ditu, baita ezarritako xedea lortu ezean, aurreikusten dituen neurri zuzentzaileen sorta ere.

Azkenik, parte-hartzaile kopuruari dagokionez honako hau zehaztu gura dugu: lehiaketa honen bidez esleitzen den kontratuak 25-50 parte-hartzaile arteko kopuruari eman behar dio zerbitzua, orri hauetan ezarritako baldintza teknikoak betez. Izen-ematea amaitu eta taldeak eratutakoan partehartzaile kopurua 25 pertsona baino txikiagoa baldin bada, esleipen prezioa % 10-20 murriztu ahalko da: 17-24 parte-hartzailerekin % 10 eta 10-16 bitarteko kasuetan % 20. Halaber, zehaztutako helburuak bete ezean kontratua ez berritzea erabaki ahalko du Udalak eta enpresa esleipendunak ez du kalteordainik jasotzeko eskubiderik izango. Modu berean, partaide kopurua 50 lagunetik gorakoa balitz, lizitazio prezioa % 10 (51-65 lagun) edo % 20 (66-80 lagun) handituko litzateke. Esan gabe doa parte-hartzaile kontzeptuaz ulertzen duguna eratutako berba-talde batean asteroko maiztasunaz biltzen den kidea ulertzen dugula.

2. BERBALAGUN PROGRAMA eta GAUZATZE INGURUNEA

Azken urteotan euskararen ezagutzak Ortuellan gora egin badu ere, hizkuntza horren erabilera ez dago oraindik inondik inora erabat normalizatuta, are gutxiago helduen arteko harremanetan, eta horiek horrela, zaila da euskaraz hitz egiteko lekuak aurkitzea. Izan ere, egoera formaletatik haratago, hots, ikastetxe eta euskaltegietatik kanpo, gaztelania erabiltzen da nagusiki. Horregatik duela hamaika urte Ortuellako Udalak martxan jarri zuen Berbalagun Programa. Programa horren helburua da euskara praktikatzeko aukera eskaintzea euskalduntze prozesuan hizketarako gaitasuna garatzen ari diren pertsonei. Horretarako, bidelari eta bidelagunez osaturiko 3-6 kideko taldeak eratzen dira, astean behin ordubete edo ordu eta erdiz euskara praktikatzeko, beti ere malgutasunez jokatuz. Jarduera mota honekin jariotasuna lantzea eta euskaraz hitz egiteko ohitura sortzea bilatzen da, baita parte-hartzaileen arteko hizkuntza ohiturak aldatu eta jendartean harreman sare berriak sortzea ere.

Halaber, berba-taldeak zaletasun baten inguruan ere sortu ahalko dira, pandero taldearekin urte askotan gertatu zen moduan, eta talde mota hauen biltzeko maiztasuna txikiagoa izan daiteke.

Gaur egun eskualde mailako ikuspegia hartu du programak, Meatzaldeko lau udalerri nagusietan garatzen ari delarik, hilero kultur edo ekintza agenda bateratua bideratuz. Programa horren Jarraipen Batzordea honako hauek osatzen dute: Muskiz, Abanto-Zierbena eta Ortuellako Udaletako Euskara Zerbitzuek, Trapagarango Udalak, Muskizko eta Trapagarango Udal Euskaltegiek, Meatzaldeko AEK-k eta programa kudeatzen duen enpresaren bidez kontratatutako dinamizatzaileek.

3. ZERBITZUAREN BALDINTZA TEKNIKOAK

Berbalagun Programa koordinatu, kudeatu eta dinamizatzeko zerbitzuak honako lan hauek gauzatu beharko ditu, gutxienez:

3.1 Izen-ematea:

Izen-emateari dagozkion komunikazio lanak egin. Kartel eta esku-orrien diseinua, bideoak, gif-ak, bannerrak eta bestelako euskarriak. Euskarrietan gabeko berrikuntza baloratu egingo da.
Interesdunei informazioa eman eta programa azaldu. Euskaltegietan aurkezpenak egin, egitasmoan ikasleak parte hartzera bultzatzeko.
Izen-ematea bideratu, parte-hartzaile bidelarien euskara maila balioztatu eta taldeak osatu.
Izen-emate kanpaina orokorra irailean egingo da 2025/2026 eta 2026/2027 ikasturteetan. Beste izen-emate kanpaina bat urte hasieran (2025eko eta 2026ko urtarrilean, hain zuzen ere) egingo da, kanpaina honen hartzaileak ondo zehaztuta, baita aurreikusitako tresna edo neurri zuzentzaileak abian jarriz.

3.2 Zabalkundea:

- Berbalagun programaren bloga, whatsapp-a eta Faceboock eta instagrameko profila kudeatuko ditu enpresa esleipendunak.
- Komunikazio kanalak diseinatu, publizitatea, e-posta, kartelak, esku-orriak…
- Udalerrian euskaraz garatzen diren ekintzen agenda digitala sortu, eguneratu eta partehartzaileei horren gaineko informazioa eman, baita Meatzaldeko hileroko Kultur agendaren zabalkundea ere.

3.3 Taldeak abian jarri eta berauen jarraipena bideratu

- Taldeak martxan jarri eta jarraipena egin maiztasun jakin batez neurri zuzentzaileak garaiz hartu ahal izateko.
- Taldeei jarraipena egin: taldeen egoera, noiz elkartzen diren, bajak-altak, gorabeherak…
- Pertsona parte-hartzaileen datu-basea egokitzea eta kudeatzea. Egin beharreko inkestak prestatu, jaso eta emaitzak balioztatu, taldeak osatu
- Taldeak urriaren hasieran jarriko dira abian eta jarraipena egingo zaie, taldeetan bisitak eginez. Gutxienez hiru astean behin talde guztietan eta, telefonoz edo bide telematikoak erabiliz, hilero.

3.4 Ekitaldiak eta ekintza osagarriak.

Enpresa esleipendunak honako ekintza hauek antolatuko ditu gutxienez:

- Ikasturte hasierako ekitaldia (urri amaieran edo azaro hasieran).
- Ikasturte amaierako ekitaldia (ekainean).
- Bestelako ekitaldi, irteerak eta tailerrak proposatu eta antolatu. Ondorengo ekitaldiak ikasturteko antolatu beharko dituzte:

1.- Txangoa (martxo-apirilean)
2.- Mendi eta bestelako irteerak (urtean bi gutxienez)
3.- Helduentzako edo familia giroko 8 tailer gutxienez, ikasturtean.
4.- Mintzodromo bat, gazteei zein helduei zuzendutakoa
5.- Ortuellako euskaldunen topaketa (udaberrian edo udazkenean). 2025eko udaberriko Euskaraldia probestu liteke ekintza hau gauzatzeko.
6.- Gaztelagunentzako asteburuko irteera, betiere honelako taldeak sortuz gero.
7.- Bestelakoak: hitzaldiren bat, euskararen egunaren bueltan ekintzaren bat, zaletasunen baten inguruko tailer iraunkorren bat…

Jarduera hauetan genero-berdintasuna bultzatuko da, emakumeen eta gizonen interesei eta motibazioei erantzuteko moduko jardueren aniztasuna proposatuz.

Gainera, ez da hizkuntza sexistarik erabiliko tailerretan, eta gizonen eta emakumeen rolak modu estereotipatuan erabiltzen ez direla bermatuko da.

Hauetako baten bat bertan behera geratuko balitz, enpresak aurrerago baina urte berean beste ekintza alternatiboren bat antolatu beharko du. Ekintza hauen guztien zabalkundea enpresa esleipendunaren esku geratuko da.

3.5 Programaren jarraipen orokorra: programaren jarraipen egokia bermatzeko honako hauek egingo dira, gutxienez:

- Jarraipen Batzordearen bilerak, gutxienez, hiru hilerik behin. Bilera horietan taldeen jarraipen txosten laburra aurkeztuko du enpresa esleipendunak.
- Bilera horiek dinamizatu, aktak idatzi eta plangintza aurkeztuko du enpresa esleipendunak.
- Ikasturte hasieran egitasmoaren plangintza proposamena eta ikasturte amaieran Meatzaldeko memoria aurkeztuko ditu, uztaila bukatu baino lehen.
- Berbalagun programa garatzeko proposatzen den dinamizatzailearen formakuntza, koordinazio iraunkorra eta jarraipena egingo du enpresa esleipendunak.

3.6 Kontratuaren prezioa: kontratuaren prezioan sartuta egongo dira Berbalagun Programa koordinatu, kudeatu eta dinamizatzeko eragindako gastu guztiak, antolatuko diren ekintza guztien, joan-etorrien eta antzeko kontzeptuen gastuak barne.

3.7 Eskualde izaera: Berbalagun Programa garatuko da Meatzaldea osatzen duten udalerri nagusietan, hala nola: Muskizen, Abanto-Zierbenan, Ortuellan eta Trapagaranen eta partehartzaileak (bidelari nahiz bidelagunak) udalerri horietakoak izango dira. Nolanahi ere den, herri horietakoak ez diren pertsonak ere onartu ahalko dira, kasuan kasu aztertuta.

3.8 Taldeak eta parte-hartzaileak
- Taldeak: taldeak 3-6 pertsonakoak izango dira. Dena dela, kasuan kasu beste kopuru batzuetako taldeak ere osatu ahalko dira.
- Parte-hartzaileak 16 urtetik gorakoak izango dira eta taldean parte hartzeko behar besteko euskara maila izan beharko dute. Salbuespena guraso-lagun taldeetan parte hartuko dutenak lirateke, euskara maila apalagoa onartuko baita.
- Taldeen saioak: saioen helburua euskara praktikatzea da eta, beraz, jarduera ludiko eta egoera informaletan garatuko dira. Bidelagunen egitekoa ez da euskara irakaslearen rola bereganatzea, baizik eta taldekide guztiek parte hartzea eta euskaraz egiteko sarea osatzen joaten laguntzea.

4. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Proiektuaren baitako ekintza guztiak prestatzen, antolatzen eta gauzatzen laguntzeko, baita koordinazio lan guztiak egiteko ere herriko koordinatzaile-dinamizatzailea

izendatuko du enpresa esleipendunak. Honetaz gain, enpresak proiektu arduraduna edo solaskide zuzena izendatu beharko du Udalarekiko harremanetarako.

Koordinatzaile-dinamizatzailearen profilari dagokionez, enpresak honako hauek aintzat hartu beharko ditu:
- Programaren garapenean ohiko komunikazio hizkuntza euskara izango denez, kontratua egikaritzeko kontratatutako langileak euskararen ezagutza gutxienez C1 gaitasun mailaren edo horren baliokideren baten bidez egiaztatuko du (Europako Erreferentzia Markoaren egokitzapenaren 48/2009 Dekretua).
- Era berean, Berbalagun zerbitzua prestatzeko ardura izango duen koordinatzaile-dinamizatzaileak aldez aurretiko urtebeteko esperientzia egiaztatu beharko du Berbalagun zein Gurasolagun taldeetan.
- Kontratatutako langileak laneko legeriak eta indarrean dagoen gizarte segurantzak eskatzen dituzten baldintzak bete beharko ditu. Era berean, zerbitzuko langile izan, eta lanean adin txikikoekin harremanetan dauden guztien aurrekari penal espezifikoen egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu enpresak, hain zuzen ere, sexu-delituei buruzkoa. Hala egiteko xedatzen du Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzea arautzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeak.
- Dinamizatzaileak izaera proaktiboa izan beharko du, ekintzailea izan, kexak eta iradokizunak kontuan hartzen dakien pertsona, zuzen eta zuhur jokatu eta bere eginkizunak behar besteko arretaz bete beharko ditu. Zerbitzuaren baldintza teknikoetan ezarritakoez gain, Udaleko euskara lan-taldean parte hartu beharko du derrigorrean.
- Bestalde, Euskara zerbitzuak bere gain hartuko du kontratuan esleitutako langileen aldaketa eskatzeko eskubidea; kasu hauetan, hain zuzen; egokiak ez direnean, kexak daudelako edo lanbide-profila betetzen ez dutelako, zuzentasunez jokatzen ez dutelako edo euren eginkizuna behar besteko arretaz betetzen ez dutelako edo ez dihardutelako beharrezkoa den zuhurtziaz.
- Azkenik, baliabide materialei dagokienez, enpresa esleipendunak programaren dinamizatzailearentzat beharrezkoak diren lan-tresnak eman beharko ditu: ordenagailua, telefonoa, bulegoko materiala, etab.

5. AURKEZTU BEHAR DIREN DOKUMENTUAK

Eskaintza teknikoan honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira (baldintza administratiboen pleguan datoz zehaztuta eskaintzan aurkeztu behar diren beste dokumentuak, hala nola, nortasuna eta kaudimena egiaztatzeko dokumentuak eta eskaintza ekonomikoa):

Eskaintza teknikoak honako atal eta eduki hauek izango ditu, gutxienez:
a. Programaren oinarri metodologikoak labur azalduta.
b. Izen-ematea eta taldeen antolaketa bideratzeko proposamena (komunikazio plana barne).
c. Taldeen jarraipena egiteko modua eta maiztasuna.

d. Ekitaldi eta jarduera osagarrien proposamen zehatza, urte osokoa, nahiz eta garapenean Udaleko Euskara Zerbitzuarekin adostutako aldaketak egin ahalko diren.
e. Jarraipen batzordeetan programaren jarraipena egiteko modua eta kronograma.
f. Proposatutako giza baliabideak eta bitartekoak: zehaztu behar da programa koordinatu eta dinamizatuko duen langilea eta bere esperientzia gisa honelako programetan. Halaber, adierazi behar dira lizitatzaileak kontratuaren eskura jarriko dituen bitartekoak.
g. Lan guztien kronograma.

6. ZEHAR-LERROAK

a) Euskara. Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen dute. Era berean, kontratuaren xede diren idatzizko agiriak, memoria-txostenak, informazio-oharrak, gutunak edo beste era bateko lanak, udalean edo herritarrei entregatu behar zaizkienak, edota jendaurrean jarri behar direnak, euskaraz sortu eta idatziko dira.

b) Berdintasuna. Programan emakumeen eta gizonen arteko elkarbizitza osasuntsua eta aukera berdintasuna bermatzeko bitartekoak jarriko dira: eztabaidetan eta erabakiak hartu behar direnean, emakumeen presentzia eta parte-hartze aktiboa bultzatuko da, genero-irizpidea kontuan hartuko da ekintzak antolatzeko orduan, hedapen materialean azalduko diren irudiak aukeratzerakoan eta abar. Enpresa esleipendunak lengoaia ez sexista erabili beharko du eta dokumentazio eta material guztietatik kenduko dira emakumeen irudi diskriminatzaile guztiak. Era berean, berdintasuna, dibertsitatea eta rol aniztasuna zabaltzen dituen irudia sustatuko da.

c) Inklusioa. Gizartean dagoen aniztasuna kontuan hartuko da eta dibertsitatea zaindu beharko da. Ikuspuntu integratzaile batetik lan egitea baztertuak izateko arriskua azaleratzen duten adierazleak agertzen dituzten pertsonen premia eta eskaerak bereziki kontuan hartzea da (ezgaitasunen bat duten pertsonak, gizarte abileziarik eza, etorri berriak eta abar).

d) Ingurumena zaintzea. Programa garatzean sortutako dokumentazioa, ahal dela, euskarri informatikoan bidaliko da. Nahitaez inprimatu behar diren agirien kasuan, horien irakurgarritasuna bermatuta badago, bi aldeetatik inprimatuko dira, ahal dela birziklatua den paperean edo modu jasangarrian kudeatutako basoetatik datorren paperean eta kolore bakarrean. Horrez gain, materiala birziklatzea sustatuko da.

7. KONTRATUAREN PREZIOA eta IRAUPENA.

Kontratuaren gehienezko lizitazio prezioa urte baterako, BEZ barik, 15.000 €koa izango da. Kontratuaren gehienezko lizitazio prezioa 30.000 €koa izango da eta aurreikusitako balioa edo balio zenbatetsia edo estimatua 36.000 €koa.

Kontratua bukatuta eta memoria jasota, Udalak, azken hau eta aurreko urte biotako proiektuaren ibilbidea kontuan hartuta, kontratua 2027 urtean luzatu ala ez beharko du 2026ko azaroan.
Kontratua luzatzea erabakiz gero, guztirako balio zenbatetsia 54.000 €koa litzateke.

KONTRATUAREN IRAUPENA
Kontratuaren iraupena urte bikoa izango da (2025eko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra arte, biak barne), urte batez luzagarria -2027-

8. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Parte-hartzaileen pribatutasunaren inguruko eskubideak errespetatzea, abenduaren 5eko Datu Pertsonalen Babeserako 3/2018 Lege Organikoak ezarritakoaren ildotik.